

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektua aurrera eramateko, hornitzaile batzuk behar ditugu. Hasteko, makina sortuko duen hornitzaile bat behar dugu eta horretarako, horretan espezializatuta dauden enpresak aurkitu behar izan ditugu. Genituen aukeretatik, azkenean, gure makina hori sortuko duen enpresa, "Azkoyen" izatea erabaki genuen; izan ere, edukitako aukeretatik berak eman zigun baliabide egoki eta anitzena. Gure hornitzailea aukeratzeko garaian, kalitateari ere garrantzia eman genion; hau da, makina iraunkorra izan behar zuen eta ez egun batetik bestera aldatu beharrekoa.

Bestalde, gure proiektua aurrera eraman ahal izateko faktore garrantzitsu batzuei erreparatu diegu, hala nola, kokapenari, eta horretarako estrategian oinarritu gara. Lehenik, Beasain herrian kokatzea pentsatu dugu, izan ere, Goierrin dagoen herririk handiena da eta beraz, honek, makinaren erabilera handiagoa izango dela suposatzen du. Behin hau jakinda, herriaren erdigunean kokatzea pentsatu genuen, hau da, Beasaingo Udaletxe azpian. Horretarako, Beasaingo Udalarekin kontaktuan jarri gara, gure makina udaletxe azpian kokatu ahal izateko eta jendeak ikusgai izan dezan. Honen bidez, jendeak makina hau maizago ikusiko duenez, ausartu egingo da erabiltzera, eta horrela, geure makinak arrakasta izan dezan lortu dezakegu.

Azkenik, gure produktua gehiago ezagutarazteko publizitate kanpainak egin behar ditugu eta horretarako, hemen inguruko pertsonaia ezagunei eskatuko diegu sare sozialetan publizitatea egiteko. Horren trukean, diru pixka bat ematea pentsatu dugu.